

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Hasierako onarpena ematea zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2016ko uztailaren 26ko ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea zerbitzuak eskaintzeagatik eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko prezio publikoen ordenantza aldatzeari.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. eta 65.2 artikuluetan eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duenak, 56. artikuluan xedatutakoa betetzeko, espedientea jendaurrean egongo da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek hura aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Epe hori igarota alegaziorik aurkezten ez bada, erabaki hori behin betiko onartuta geratuko da.

Dura, 2016ko uztailaren 28a

Alkatea

M^a BLANCA ANTEPARA URIBE